

2025eko maiatza



Partitiboa: (r)ik atzizkia

Partitiboa kasu gramatikoa da: (r)ik atzizkia. Izen sintagma partitiboak lau perpaus motatan erabiltzen dira: ezezkoetan (*Ez dut astirik horretarako*), galderetan (*Kaferik nahi al duzu?*), baldintzazkoetan (*Laguntzarik behar baduzu, deitu*) eta, indar enfatikoa emanez, baiezkoeetan (*Zuberoan bada mutil ederrik!*).

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duen partitiboaren araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

Partitiboaren marka lotzen zaienean, **mugagabea**n izan behar dute izen sintagmek:

- Ez dut lanarik egin. ***
- Ez dut lanik egin.

Sintagmak balio generikoa duenean, ezezko perpausetan partitiboa erabili, artikulua erabili ordez:

- Ez dago papera. ***
- Ez dago paperik.

Hori horrela, aditzarekin egiten den komunztaduran izen sintagma partitiboek ez dakarte sekula numero markarik eta, honenbestez, adizkera jokatuan **ezin dezakete erabil pluralik**:

- Ez dituzu lagun onik aurkituko. ***
- Ez duzu lagun onik aurkituko.

- Seme-alabarik ez ditut. ***
- Seme-alabarik ez dut.

Estilo-kontua: Erlatibo-perpausetan, baldin eta ardatza den izena partitiboan badago, perpaus erlatiboa izenaren eskuinera eraman daiteke, partitiboa jarrita (aposizioan dauden bi sintagma eratuz). Hala, arindu egiten da erlatibo-perpaua:

- Ez da(go) alferkeriak bezainbat kalte egiten duen pozoirik. ***
- Ez da(go) pozoirik alferkeriak bezainbat kalte egiten duenik.

Beste hainbeste egin daiteke ardatza inor edo ezer denean, baldin eta absolutiboan (NOR kasuan) badaude:

- Euskal Herrian ez da(go) hark adina diru duen inor. ***
- Euskal Herrian ez da(go) inor hark adina diru duenik.



Ohiko erdarakadak



✗ **Miarritzek eta Baionak bihar jolastuko dute Aguilera.**

✓ **Miarritzek eta Baionak bihar jokatuko dute, Aguilera.**



✗ **Harrapaketan jokatu gara.**

✓ **Harrapaketan jolastu/ibili gara.**



✗ **Iñaki Artolak oso ondo jolastu zuen Labriten.**

✓ **Iñaki Artolak oso ondo jokatu zuen Labriten.**

joko ≠ jolas

Irabaztea edo galtzea eta sariren bat tartean dagoenean, **jokoa** da, ez jolasa; aldiz, atsegin edota atsedeen hartzeko jarduna da **jolasa**, olgeta, josteta, eta dirurik jokatzen ez den joko edo kirola.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



SUDUR ZULOAK ≠ SUDURREKO PIERCINGAK

Zain dezagun euskara!